

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Atxondo



Aurkibidea

Udalerria: Atxondo

Sarrera



Udal izaera 1962. urtean hartu zuen, aintzinako Apatamonasterio, Axpe-Martzaa eta Arrazolako elizateak elkartu zirenean. Elizateok Durangoko Merinaldekoak ziren. Atxondoko harana Bizkaiko hego-ekialdean kokatuta dago, Durangaldean, Elorrio eta Abadiño udalerrien artean, eta Arabako Aramaio herriaren ondoan. Euskal hiltunen portzentaje esanguratsua dela-eta UEMAko (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea) kidea da.

Argazkia: Txo

- **Biztanleak:** 1.396
- **Euskaldunak:** %67,0

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **16**
- Zintak: **15**
- Pasarteak: **87**
- Transkribatutakoak: **1**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **87**

Proiektuak

- Dialektologia-EHU
- Durango 1936
- Ermuko Ahozko Ondarea
- Euskal Herriko Ahotsak
- IRLAren Bizkaiera Bilduma

Hizlariak

Balentina (1905)

Axpe-Arrazolan jaio zen (Atxondo). Gazterik hasi zen neskame lanetan Osin

Domingo Bernas Eguren (1922)



Arrazolako Oilar baserrikoa. Artean mutikoa zela harrapatu zuen gerrak Tx...
behar utzi eta Alonsotegira alde egin behar izan zuten. Handik bueltan, ba



None Bernastarrak

Pedro Buruaga Murua *Rubio* (1911-2011)



Arrazolako Goiko-Etxebarri baserrian jaio zen, 1911ko ekainaren 29an; eta
grabazioa. Nabarmentzekoak dira Buruagak berbaldian erakusten duen no
sinesgarritasuna eta irudi bidezko adierazkortasuna ere.

Grabazio honetako pasarte bat —Buruagak zeruaz eta infernuaz esandako

Maria Gorostiza Aranburu (1923)

Magdalena Hermogenes Bilbao

84 urte zituen elkarriketa egin zitzaionean.

ATX-002 Hizlari ezezaguna



Feliciano Markoida Olaetxea

Arrazolako Panarra baserrikoa. Gerra garaiko kontuak jasotzeko egin zioten
zen. Etxera itzultakoan, prezintatuta aurkitu zuten. Gainera, Mateo neba g



Iñigo Mendibil Arando (1971)

[Durango 1936](#) Elkartekoek egin zioten elkarriketa gerra garaian familiak b



Roberto Oleaga Zengotitabengoa

[Durango 1936](#) Elkartekoek egin zioten elkarriketa, [Rosi](#) arrebarekin batera



Rosi Oleaga Zengotitabengoa

[Durango 1936](#) Elkartekoek egin zioten elkarrizketa, [Roberto](#) anaiarekin bat



Felix Salterain Murua (1924-2014)

Atxondo udalerriko Axpe Martzaan jaio zen, Asteiza (Astitze) baserrian, artzain joan zen ihesi familiarekin, artalde eta guzti. Hamasei urterekin morroi egon ezkondu zen eta bertan bizi izan da geroztik.

Maria Urizar Bazeta (1911)

Arrazola-Atxondoko "Zumelan" jaio zen 1911n, Migel arotza eta Gregoria arotza izan zen Feliciano Timoteo Arteagarekin ezkondu zen, eta haren jaiotetxerako astintzen. Umoreko beti, gustuko du abestea eta gogoan ditu gaztetako ko

Luis Zabala Irazola (1909-1999)



Felix Zengotitabengoa Gorrotxategi (1921)

Arrazolan jaio zen, *Atxekoa* baserrian. Gerra garaian etxetik alde egin behar izan aita, Pedro Zengotitabengoa, kartzelan sartu zuten beste zazpi lagunekin b

Eustakio Ziarsolo

Mendikoa baserrikoa. Arrazolako sakristau izandakoa. Artzaina. 75 urte zituen

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Ohiturak eta bizimodua

1.1. Irakasle nafarra

- **Hizlaria(k)**: Salterain Murua, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elexpuru, Juan Martin - Gallastegi, Juanito - Salterain, Juanjo
- **Erref**: ATX-005/002
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 00:02:49. **Bukatu**: 00:04:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

- **Laburpena:** Eskolan irakasle nafarra izan zuen, behin-behinean zegoena. Anekdotak bat kontatzen du.

Transkripzioa

- Eskolara nora joan zifan?
- Eskolara, ibili nitzan ni Garziariñon aittaaz.
- Pelotarixa. Axpen bertan?
- Bai. Ta hare... zan naparra zerraua. Entzun, e? Ta ebentuala zan ha.
- Napar zerraua, baiña erdeldune.
- Bai, bai, zerraua, erdeldune. Ta harek eskolatik... ez, nik eskolatik eta harek maisutzatik —ebentuala zan—Memeriko puntara, biherrien bixok. Ta bagaz bezkeittan han ta: “Ah! niri ez dakit zer pasau, niri ez da gustau bihera”.
- Ze eitten zaban, sasi-euskeria?
- E?
- Sasi euskeria eitten zaban?
- Bai, seguru! Ez ekixen hak bape ta! Sasi... Ta Axpen neskato-mutikotan holantxik. Ta beste “Akerra” esaten otsena, Atanaxio, etorri zan pitxer ederraz gero, e? ederra pitxerra. Gaur be hak pitxerrak... Uretan etorri zan. Ta mutikuek apurtu ein otsen /eitzen/ pitxerroi. Ta maisue... Pitxer zatixek hartu ta maisue ondolik bazoien ta: “Maiso! Estos mutikos no tienen latsa! Yo venir a la escuela a dar garrotazos!” ta zatixe bota eban. Hori Bittorrek be ondo daki.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Arrazolarako trena (ATX-005/004)

Arrazolan bazen eskola. Senideak zituen han. Elorriora baino lehen, Arrazolara joaten zen trenbidea, meatzeak zeuden eta. Trena kea dariola joaten zen. Gaztelerazko esaera bat esaten du.

2. Irakaslearekin Santa Ageda batzen (ATX-005/005)

Garcia Ariño pilotariaren aita izan zuen irakasle. Irakurtzen ondo ikasi zuela dio. Gitarra ondo jotzen zuen irakasleak eta Santa Ageda batzen joaten ziren. Anekdotak bat kontatzen du. Santa Eskeko koplak zati bat abesten du.

3. Morroi Osintxura (ATX-005/007)

San Blas eguna zen eta elurra ari zuen. Etxetik morroi alde egiteko eguna. Bergarako Osintxu auzora iritsi zenean, aldapa handiak zeudela gogoratzen du. Harrera egin zioten afari onarekin.

4. Haria eta abarka-kordelak egiten (ATX-005/008)

Haria egiten zuen txabilan eta abarka kordelak ere egiten zituen. Nola egiten zen kontatzen du. Tabako orria erretzen ere han ikasi zuen. Berarekin batera morroi ibili zenaren anekdotak bat kontatzen du. Osintxuko Eguzkitza baserrian egon zen morroi. Inguru hartan baserri guztietan zeuden neskame eta morroiak.

5. Iturbeko lurjabea eta ijitoak (ATX-005/009)

Garia eta bereziki artoa ereiten zuten. Iturbeko lurjabe handiak ijitoekin izan zuen anekdota bat kontatzen du.

6. Soldadutzan itsasoan (ATX-005/010)

Soldadutzan zebilela, andaluziar batek Bilbon ehun pezeta ostu zizkion. Itsasoan egin zuen soldadutza eta nondik nora ibili zen kontatzen du. Beste euskaldunak ez zitzaion tokatu.

7. Portugaletako neskaren eta soldaduen arteko pasadizoa (ATX-005/011)

Portugaleten soldadutzako kideekin gertatutako anekdota, neska bati piropoa bota eta hark erantzun ziena.

8. Nafarrei buruzko kontakizunak (ATX-005/014)

Bere aitak kontatzen zuen pasadizoa, Anbotosten lau nafar ikatza egiten aritu zirenekoa. Arnedilloko nafarraren anekdota.

9. Erdaraz ez zekitenek buruzko kontakizunak (ATX-005/016)

Erdaraz bat ere ez zekien baten pasarteak, Durangora plazara saltzera joan zenekoa. Arabara joaten ziren erdaraz ikastera eta batzuk euskaldunekin elkartu eta bat ere ikasi gabe itzultzen ziren. Anekdota bat kontatzen du.

10. Betaurrekodunaren pasadizoa (ATX-005/017)

Betaurrekoak harrokeriagatik erabiltzen zirela esaten zuten lehenagokoek. Anekdota bat kontatzen du.

11. Mañariako ugazabaren pasadizoa (ATX-005/018)

Pasadizoa: Mañarian gereziak batzera bidali zituen ugazabak morroiak baina etenik gabe txistuka aritzera derrigortu zituen, ez zezaten gerezirik jan.

12. Berorika, zuka eta to zeini egiten zion (ATX-005/021)

Berorika apaizari eta medikuari egiten zioten. Zuka anai zaharrenari egiten zion eta hika gainontzeko anai-arrebei.

13. Telefonoa, bizikleta eta irratia lehenengoz (ATX-005/024)

Axpen lehenengo telefonoa jarri zutenekoa eta lehen bizikleta ekarri zutenekoa. Lehen irratia izan zuenari buruzko pasadizoa.

14. Arantzazuko bideari buruzko bertsoak (ATX-005/026)

Arantzazuko bideari buruzko bertsoak abesten ditu, amari ikasiak.

15. Arantzazurako prozesioko pasadizo barregarria (ATX-005/027)

Arantzazura erromes eta liburua ahaztuta joan zen apaiz baten pasadizoa.

16. Munduaren azkeneko bertsoak (ATX-005/028)

Munduaren azkeneko bertsoak kantatzen ditu, amari ikasiak.

17. San Blasetao bertso-paperak (ATX-005/031)

Manoleteren kantuak saltzen zituzten Abadiñoko San Blaseta. Zapata-saltzailearen kontuak. Lapurretan asko egiten zuten San Blaseta. Bertso-paperak saltzen zituzten.

18. Maiatzeko loreetako abestia (ATX-005/034)

Eskolara ahal zenean joaten ziren. Maiatzean loretara joaten ziren eta kantuz aritzen ziren. Abesti bat kantatzen du.

19. Don Luis apaiza (ATX-005/036)

Don Luisi buruzko kontuak kontatzen ditu. Ehiztari ona omen zen.

20. Elorrioko eta Axpeko hizkerak (ATX-005/037)

Elorrioko hizkera desberdina da Axpekoarekiko, doinuana eta berbetan.

21. Abarketak elizarako, gainerakoan oinutsik (ATX-006/001)

Abarketak elizara sartzeko janzen zituen, eta atzera oinutsik itzultzen zen etxera.

22. Gaztainak jatordu guztietan (ATX-006/003)

Gazta asko jaten zuten, etxean egindakoak. Gaztaina arloak izaten ziren, etxe bakoitzarentzat. Gaztainak eguerdian egosten zituzten, bazkaltzeko. Gauean gaztainak erre egiten zituzten afaltzeko.

23. Gaztainak urte osoan (ATX-006/004)

Sagarra, pikuak eta gaztainak hilabete askoan izaten zituzten. Gaztaina eskolaren barruan gordetzen zen, urte osorako. Bakailaoa ere sarri jaten zuten. Goserik ez zuten izaten. Gabonetan kontserbaren bat erosten zuten.

24. Ardiak eta astoa etxean (ATX-006/006)

Ardiak Anboton izaten zituzten udan eta etxe inguruetan neguan. Etxe bakoitzean astoa izaten zen, larunbatetan emakumeak azokara joateko. Artoa, garia, baba... ereiten zituzten. Konforme bizi ziren.

25. Anbotora ardiekin egunero udan (ATX-006/008)

Ia berrehun ardi izaten zituzten etxean. Udan Anbotora joaten zirenean, gauez etxera itzultzen ziren. Lehenago etxolak izaten ziren baina bertan behera geratuz joan ziren. Nekagarria izaten zen. Artzaintzaz gain, etxean lan asko egin behar izaten zuten.

26. Gazta egin eta lehortu (ATX-006/009)

Gazta etxean egiten zuten, eskuan, prentsarik gabe. Ganbaran, etxean lehortzen zituzten, oholen gainean. Sua sukalde erdian egiten zuten, tximiniarik gabe.

27. Umeek gurasoei izan beharreko errespetua (ATX-006/011)

Erromeriara fraka luzeekin joaten ziren. Hamabi urte artean, ahopeka berba egiten zuten. Helduak ziren berba egiten zutenak. Umeak errespetuan hazi eta hezi behar zirela agintzen zuten apaizek. Ume asko hiltzen zen lehen.

28. Neska-mutilek ezin elkar musukatu (ATX-006/013)

Erromeriara joaten ziren. Aramaitakoak (abe mariatakoak) jo aurretik, etxera itzultzen ziren. Zelan dantzan egiten zuten kontatzen du. Mutilak bizarra eginda eta ilea atzeratuta joaten ziren, baina ezin izaten zuten neska-mutilek elkar musukatu.

29. Trabakuako gazteak laztanka (ATX-006/016)

Soltean eta elkarri helduta ere egiten zuten dantzan. Trabakuara saloia ikustera joan zirenekoa kontatzen du. Dantzariak laztanka aritzen ziren han.

30. Sorginak benetan nortzuk ziren (ATX-006/019)

Sorginen jatorria zein den azaltzen du: Jesukristorengan sinesten ez zutenak ziren, kobetara bizitzera behartuak. Sorginek lapurretan egin behar izaten zuten eta kristauek, sorginak uxatzeko, sua pizten zuten.

31. Infernua eta zerua badirenik ezin jakin (ATX-006/021)

Infernurik eta zerurik badagoen galdetzen du. Esaldi indartsua botatzen du: "infernurako beldurrik ez daukat, baina zerurako pozik bez". Axpeko abade batekin izandako eztabaida kontatzen du, zerurik eta infernurik baden edo ez.

32. Bertso pare bat (ATX-006/022)

Pedrok koplak kantatzeko eskatu die. Elkarrizketatzaileak botatako bertsoari erantzuten dio Pedrok.

33. Bizkaiko txerriarena (ATX-006/024)

Senar-emazte batzuei Bizkaian gertatukoa kontatzen duen bertso-sorta abesten du.

34. Apaizaren eta neskamearen istorioa (ATX-006/025)

Lehen neska asko neskame joaten ziren. Neska bati gertatutakoa kontatzen du, apaizek egiten zituzten gehiegikeriak azalduz.

35. Sufritzeko eta gozatzeko etorriak (ATX-006/027)

Mundua sufritzeko eta gozatzeko dela dio.

36. Gozamena gerorako ez da laga behar (ATX-006/029)

Neska-mutilen arteko harremanak. Nagusitutakoan ezin dela berriz gazte izan eta gozamena ez dela gerorako laga behar dio. Ezkontzeko etxea eraiki behar izan zuen.

37. Isidra Bernasen familia (ATX-010/001)

38. Errepublika garaian eskolan erderaz (ATX-010/002)

- 39. Patxi Bernas Zumelaga milizianoa hil (ATX-010/003)**
- 40. Arrazolatik Bilbora (ATX-010/004)**
- 41. Isidra Bernas Bilbon, Carlton hotelaren ondoan (ATX-010/005)**
- 42. Arrazolara itzulera (ATX-010/006)**
- 43. Enrike Bernas Zumelaga Laredon preso (ATX-010/007)**
- 44. Enrike Bernas Zumelaga trabajadoreetan (ATX-010/008)**
- 45. Angela Bastida Zumelagari ilea moztu gura (ATX-010/009)**
- 46. Enrike Bernas Zumelaga trabajadoreetatik bueltan (ATX-010/010)**
- 47. Juan Eriz koinatua kartzelan (ATX-010/011)**
- 48. Bilobak aurrekoen "zorrak ordaintzen" (ATX-010/012)**
- 49. Itziar, Aitor eta Inmaren eskola garaiko kontuak (ATX-010/013)**
- 50. Guardia zibilak etxean bisitan (ATX-010/014)**
- 51. Tabernan bonba jarri zietenekoa (ATX-010/015)**
- 52. Tabernan bonba eta Hidalgo kapitaina (ATX-010/016)**
- 53. Inma Berriozabal Bernas: gogoeta. (ATX-010/017)**
- 54. Itziar Bernas: GALen garaia Baionan (ATX-010/018)**
- 55. Itziar Bernas Baionan atxilotu (ATX-010/019)**
- 56. Itziar Bernas: torturak Madrilen (ATX-010/020)**
- 57. Itziar Bernas: gogoetak. (ATX-010/021)**
- 58. Gerrak urten eta milizianoak etxean (ATX-011/001)**

- 59. Ebakuazioa Alonsotegira eta han ere bonbak (ATX-011/002)**
- 60. Alonsotegitik Arrazolara itzulera (ATX-011/003)**
- 61. Gerraostean gosea (ATX-011/004)**
- 62. Euskaraz nahinun ez (ATX-011/005)**
- 63. Arrazolarrak kartzelan (ATX-011/006)**
- 64. Mateo neba zelan joan zen eta non zegoen lurperatuta (ATX-012/012)**
- 65. Amaren familiaz (ATX-013/001)**
- 66. Aitita Gudari. Aititaren anaia anbulantzia gidaria bonbak hil. (ATX-013/002)**
- 67. Amamaren familia eta izeko Pakita zelan gogoratzen zen Mateoren hobiaz (ATX-013/003)**
- 68. Mateo Markoida gerrara eta zelan jakin zuten non zegoen lurperatuta. (ATX-013/004)**
- 69. Aranzadiren bitartez Mateo Markoidaren hobia non zegoen jakin (ATX-013/005)**
- 70. Familiakoak urtero joaten dira Arrietara (ATX-013/006)**
- 71. Mateo Markoidaren dokumentazioa eta objektuak (ATX-013/007)**
- 72. Elorrioko aitita-amamak zer kontatu dieten gerraz (ATX-013/008)**
- 73. Tia Pakitak Arrazolako kontuak: nazionaletara pasa zen gaztea eta geroko errepresioa (ATX-013/009)**
- 74. Tia Pakita Bartzelonan (ATX-013/010)**
- 75. Transmisioa seme-alabei eta hausnarketa (ATX-013/011)**
- 76. Osaba Feliziano Oleaga Teruelen hila. (ATX-014/001)**

**77. Gerra garaiko aitaren eta osabaren informazio gitxi.
(ATX-014/002)**

78. Timoteo Oleaga, aita. (ATX-014/003)

79. Auzoko frankista: Marcelino Gorroño (ATX-014/004)

**80. Rosi Axpeko eskolara: maistra euskalduna
(ATX-014/005)**

81. Roberto Apatako eskolan erderaz (ATX-014/006)

82. Aitak bizi guztirako zigorra (ATX-014/007)

83. Gobernadorea Axpera (ATX-014/008)

84. Nazionalak Anbotoko puntan (ATX-015/001)

85. Arrazolatik Zierbenara (ATX-015/002)

86. Gerraostean Arrazolako zazpi kartzelara (ATX-015/003)

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-09-10

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com